

ENPRESAK. Salmenta prozesua burutzear da

BWren pribatizazio ustela salatu dute LABek eta ESK-k

Enpresatik lan egin gabe kobratzen duen UGT eta CCOOko «liberatu andana dago»

Joseba Aiarza | BILBO

Galindoko (Bizkaia) Babcock Wilcox (BW) enpresaren pribatizazioa burutzeko zorian dagoela, prozesua ustelkeriaz josita egon dela salatu dute LAB eta ESK sindikatuak. Egindako irregularitasunen erantzukizuna enpresako zuzendaritzari eta UGT, CCOO eta ELA sindikatuak egotzi diete.

Roberto Barañano eta Kike Cosgalla ESK eta LABeko ordezkariak azaldu dutenez, Bizkaiko ekipo ondasun enpresa honetan 200.000 milioi pezeta-ko diru publikoa inbertitu ostean, azkenik «oparitu» egin diote Alemaniako Babcock Borsig, kudeaketa okerrak haren bidegarritasuna eragotzi baitu. Salmenta prezioa 27.000 milioi pezeta ingurukoa izan da.

Bstalde, enpresatik kobratu baina lan egiten ez duten «liberatu andana» bat dagoela azpimarratu dute bi sindikatuak. Haien artean CCOO eta UGT sindikatuetakoa goi mailako karguak aipatu dituzte.

ESK-k eta LABek, BWko enpresa batzordeko partaide izan arren, negozioazio prozesuetan baztertu izana egotzi diote zuzendaritzari eta UGT, CCOO eta ELAri. Enpresak 450 lanpostu galdu ostean, proiektu berrian sartuko diren 650 langileen zerrenda «erabili eta manipulatu» egin dituzte sindikatu horiek, euren afiliatuak kokatzeko, LAB eta ESKren arabera.

Hala, zerrenda horretan Corcuera ministro ohiaren anaia, Santurtziko PPko zinegotzi bat eta ELAko ordezkari baten semea sartu direla jakinarazi dute. Are gehiago, hiru sindikatu horiek euren langile afiliatuen artean enpresak emandako dirua banatu egin dutela ziurtatu dute LABek eta ESK-k.

Babcock Borsig 650 langile horiek izango dituzten lan baldintzak negoziatzen ari dira orain UGT, CCOO eta ELA, eta BWn dagoeneko sinatuta dagoen lan hitzarmena baliogabeteaz gain, hitzarmen berriak «20 urteko atzerapausoa» ekarriko duela ohartarazi dute.

EHNE. Baserria hirira eramanez, protesta isila egin zuten baserritarrek



GARI GARAIALDE

Zekorra eta behiak izan ziren atzo protagonista Tolosako Triangulo plazan.

Lehen sektorearen egoera kezkarria salatu du EHNE nekazaritza sindikatuak

Leire Montes | TOLOSA

Baserria hirira gerturatu zen atzo. Izan ere, Gipuzkoako EHNE sindikatuak (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) lau behi eta zekor bat eramanez Tolosako Triangulo plazara. Protesta egitea zen ekintza horren helburua: nekazaritzak bizi duen egoera larria salatzea, hain zuzen. Asteburu guztian zehar ere mobilizazioak izango dira.

«Bas-herria hirian, SOS» lelopean egin zuten atzo protesta isila baserritarrek. Egun sektoreak bizi duen egoera larria eta kezkarria salatu nahi izan zuen EHNEko presidente Marije Intxaustik: «Gero eta jende gehiagok uzten du baserria, eta ez daukagu instalazio berririk».

Eskari bikoitza

Baserritik hirira joatean, bi hartailerik bidali nahi izan zuten beren mezua EHNE sindi-

katutik: Eusko Jaurlaritzari eta kontsumitzaileei.

Osatu berri den Eusko Jaurlaritzari politika aktiboa eskatu zioten. Hainbat ekintza geratu dira burutzeke eta esnearen zein haragiaren alo- rean benetako plan sektorial egokiak behar dira, «benetan hitzartutako plan sektorialak». Marije Intxaustiren iritziz, «politika aktibo bat eskatu behar zaio Jaurlaritzari, baserritarrok benetako errenta eta bizi kalitatea lor ditzagun».


Kontsumitzaileei ere dei egin nahi izan zuten Intxaustik: «Gure produktuak kontsumitzeko eskatzen diegu, horrela lehen sektorea bultzatzen lagun dezaketelako».

BURTSA. Bezperan irabazitakoari ezin eutsi izan zioten indize nagusiek

Ezina nagusi

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **-0,40** | Azken indizea **1435,37** | Aurreko indizea **1.441,10**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	10.556,79 (-0,50)
Tokio (Nikkei)	JAI EGUNA
Madrid (IBEX-35)	8.304,10 (-0,36)
Paris (CAC-40)	4.880,70 (-0,10)
Londres (FTSE 100)	5.387,10 (-0,93)
Frankfurt (DAX)	5.745,37 (-1,45)
Milan (Mibtel)	25.157 (-0,49)

* Eguerdita arte

Dibisen merkatua

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8776
Libra Esterlina	0,6118
100 Yen (Japonia)	1,0536

DATUA

Repsol-YPFk ez du burtsan une gozoa bizi. Argentinako arazoak, petrolioaren prezioaren pixkanakako beherakada, beroren eskariaren gutxitzea EEBBetako moteltzea medio. La-Caixa %12ko partaidetza sendotu du petrolio enpresan. Inbertsio plana aurkeztu du, eta Iberdrolarekin harremana epeltzen ari da. Bata karakola, bestea barea...

KOMUNIKAZIO MASTERRA EUSKARAZ 2001-2003

HEZKUNTZA, INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA (HIK)

EHUK eratua (ILCLI institutuak) EUSKALDUNON EGUNKARIAREKIN lankidetzan

IRAUPENA

2 ikasturte, 250 ordu urtero (50 kreditu orotara)

LAN PRAKTIKAK

EUSKALDUNON EGUNKARIAN egingo dira praktikak (7 kreditu urtero)

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

ILCLI. EHU, Villa Asunción, Jose Eloseggi Alkatearen hiribidea, 275, 20015 Donostia. Internet: www.egunkaria.com/masterra.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Egunkaria